



ZESTOAKO UDALA

TXAKURREN INGURUKO BANDOA

Konpainiako animalien, gehienbat txakurren, eta pertsonen arteko elkarbizitza baketsua lortu, osasunerako eta ingurumenerako arriskuak ekidin eta herritarren lasaitasuna eta segurtasuna bermatu nahian, Zestoako Udalak ohar honen bidez hainbat irizpide finkatu ditu, kontuan izanik gai honen inguruan kexak jaso direla azken boladan:

- Erabat debekatzen da haurrak jolasteko tokietara eta janari dendetara txakurrak sartzen uztea.
- Herriko kaleetan, espazio publikoetan eta eraikin kolektiboetako leku komunetan txakurrak kontrolpean eta uhal batekin lotuta joan beharko dira. Uhal hori animalien ezaugarrietara egokituko da eta gehienez ere metro bi izango ditu.
- Debekatuta dago txakurren gorozkia bide, espazio publikoetan edo pertsonen pasadizorako den edozein lekutan uztea. Espaloiaren edo oinezkoentzako bideren baten gorozkia uzten badute, txakurra daramanak garbitu beharko du zikindutako lekua.
- Txakurraren jabea txakurrak sortzen dituen kalte, galera edo arazoentzako erantzulea izango da, baita txakurrak alde egin badiotik edo galdu egin bazaito ere.
- Txakurren jabeek beraiek identifikatu beharko dituzte. Identifikaziorako "mikrotxip" bat sartuko zaio animaliarri lepoaren ezkerreko aldean, jaio edo erosi denetik hilabetera.
- Arriskutsuak izan daitezkeen txakurren jabeek behartuta daude hirugarrenei eragindako kalteei aurre egiteko erantzukizun zibileko aseguru bat kontratatzeraz; aseguru horren estaldura, gutxienez, 120.000 eurokoa izango da eta euren tamaina eta arrazarentzako egokia den muturrekoarekin eraman behar dituzte. Inolaz ere ez dira lotu gabe ibiliko eta pertsona batek ezingo du txakur horietako bat baino gehiago eraman.

Irizpide hauek hautsi edo ez betetzean Udalak isunak ipiniko lituzke.

Zestoa, 2016ko ekainaren 1a
ALKATEAK,

